

ELA euskal konfederazio sindikalaren XII Kongresua



CHRISTIAN DUFOUR - ADELHEID HEGE

Edukia

	Orr.
Laster mendea beteko duen arren, sindikatu gaztea	3
Kontrabotere-sindikalismoarako bidea	5
1993ko berreratze kongresua	8
Afiliazioa, bizi sindikalaren oinarri	9
Erakunde integralaren arrazionalizazioa	10
2008ko kongresua: hautu zailen saria	12
Antolakuntza: Erakunde integrala eta demokrazia sindikala	13
Ezarpena: eginkizun soziala eta lehentasuna prekarioei	14
Ekintza: aukera estrategikoak eta gatazka hautatuak	16
Auzi nazionala eta sindikatua gizarte-mugimendu gisa	17

Artikulu hau frantsesez argitaratu zen Chronique Internationale de l'IREs aldizkariaren 117. zenbakian, 2009ko martxoan.

Argitalpena: Manu Robles-Arangiz Institutua
Barrainkua, 13
48009 BILBO
www.mrafundazioa.org

Inprimaketa: Bilbo Graf (Bilbo)
ISBN: 978-84-936523-0-2
Lege Gordailua: B



16. Dokumentuak. 2009ko ekaina

ELA euskal konfederazio sindikalaren XII Kongresua

Christian Dufour - Adelheid Hege (*)

Euskal Langileen Alkartasuna konfederazio sindikalak bere XII Kongresua egin zuen 2008ko azaroan Bilbon. Kongresu honek berretsi egin zuen euskal erakunde sindikal nagusiaren eredu sindikala eta norabidea. Halaber, belaunaldien berritzearekin jarraitzeko aukera ere izan zen, idazkari nagusi berri bat hautatu zelarik.

ELAk kongresua bere irudia plazaratzeko erabili zuen, honako ezaugarriekin: kideen gaztetasuna, afiliatu kopuru handia eta hauteskundeetan etengabeko hazkunde (auzi nazionalak areagotzen duen lehia sindikalaren baitan). Europako mugimendu sindikal askok bere buruari buruzko zalantzak ditu; aitzitik, euskal konfederazioa osasuntsu ageri da. Bere aukera estrategikoetaz baliatzen da, harreman sozialen esparruan sindikatu honen duen berezitasuna islatzen duten aukerak.

Laster mendea beteko duen arren, sindikatu gaztea

ELA 1911n eratutako langile kristauen elkarte batetik sortu zen. Printzipio antisozialisten ganean sortua, elkarte hau emeki hedatu zen eta EAJ euskal alderdi nazionalista demokristauetik oso hurbil egon zen diktadura frankista garairaino. Diktadurarekin, bere buruzagi batzuk erbesteratu egin ziren, sasia erakunde batek iraun zuelarik. Bi alde hauen arteko harremanak gaiztoatu egin ziren, mugimendua nola bilakatu behar zen ba-

* **Christian Dufour eta Adelheid Hege ikertzaileek mundu sindikala aztertzen duen Frantziako IRES institutuan egiten dute lan. Artikulu hau *Chronique Internationale de l'IRES* aldizkariaren 117. zenbakian argitaratu zen, 2009ko martxoan.**

koitzak era batera ikusten baitzuen. Garai honetan, halere, ELAk harreman estua izan zuen nazioarteko mugimendu sindikalarekin. Honen ondorioz, Nazioarteko Konfederazio Sindikala sortu arte ELA Nazioarteko Sindikatu Libreen Konfederazioko eta Lanaren Mundu-Konfederazioko kide izan da.

Frankismoa amaituta, 'barneko' ELAk bere irizpideak ezarri zituen. Erakundearen nortasun sindikala areagotu egin zen, aurretik alderdi demokristauarekin izan zituena loturen kaltetan. Joera abertzaleari eutsi zion, baina ELAk LAB lehiakide abertzale sindikalarekiko desberdintasun argia mantentzen zuen; LAB oso lotua dago Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduarekin eta bere adar armatuarekin, bereziki (Bunel, 1999).

1966tik aurrera sindikatuak bere aukera sozialista arriago berretsi zuen. Baina honek ez zuen ekarri UGT eta CCOO sindikatu "espainolistengana" hurbiltzerik. Hauek kontsentsuaren aldeko ildoan zeuden. Ildo honi jarraiki sinatu zuten Moncloako Ituna (1977) alderdi politiko guztiek, EAJk barne. Trantsizio garaiko kontsentsuaren inguruko aliantza hau (Frotiée, 2005) ELAk gaitzetsi egin zuen, krisi une batean langileen interesen aurka egiten zuelako. Horrenbestez, ELAk uko egin zion sindikatuari eskaini zitzaizkien aitortza instituzionalari, eta egonkortasun sozialari ere ez zion lehentasunik eman. Probokazio honek ez zuen eragin handirik ELAk 1978ko hauteskundeetan emaitza oso apalak lortu zituelarik, baita bere-berea zuen euskal esparruan ere: UGTk botoen %16,83a lortu zuen; CCOOek, %16,08, eta ELAk, %12,12. Gainerako botoak sindikatu gabeko ordezkariak jaso zituzten, eta LAB ez zen %5era iritsi. Baina garai hartako inflazio itzelak (%25 1978an) ituna sinatu zutenen asmoa zapuztu zuen. Euskal sindikatuaren erabaki arriskutsua azkar asko zentzuzkoa izan zela agertu zen.

Baina posizio erasokorra hartu arren, ELAk 1979ko biltzarrean oraindik ere bere burua sindikalismo instituzionalaren baitan kokatzen du, eta ez hainbeste mugimendu sozial gisa (Letamendia, 2005). Honetan, ELA sindikatu espainolengandik hurbil dago; hauek sindikalismo instituzionalizatuaren aldeko apustua egin zuten eta ez afi-liatu eta militanteen sindikalismoaren alde. Baina ELAk laster topo egingo du bere bi bidelagun nagusienekin batera joateak dakartzan zailtasunekin. Bi sindikatuok nego-ziazio zentralizatua dute helburu, eta honetan alderdi politiko espainolen babesak dute, hauek erakunde abertzaleen aurka baitaude. Eta lan-legerian erreformak egin ahala taxutu zen instituzionalizazioa sindikatu txikien kalterako izan zen. Adibidez, legeak dio ordezkariak sindikala pertsonal-ordezkari edo enpresa-batzordetarako hauteskundeetan emandako botoek erabakitzen dutela (6tik gora langile dituzten enpreetan). Negoziazioan nazio mailako hauteskunde sindikaletan botoen %10 edota erkidego autonomoetan %15 lortu duten sindikatuak bakarrik har dezakete parte. Gainera, gutxienez 1.500 ordezkari izan behar dituzte. Honek ELA izatez estatu mailako eztabaidatik kanporatu egiten du, eta hasieran baita Euskal Herriko mailakotik ere.

Esku hartzeko bere aukerak murrizten zituzten oztopo hauen aurrean, ELAk estrategia propioa hautatu zuen, sorrerako norabidetik aldentzen zena eta sindikatu espainolekin zuzenean talka egiten zuena.

Kontrabotere-sindikalismoarako bidea

70. hamarkadaren amaiera aldera ELAk bere proiektua lau puntutan laburbildu zuen. Sindikalismoa a) atal sindikalean eta herri-batzan oinarritzen da; b) ez da lan-

tokira mugatzen; c) negoziazio sindikalismo bat izan behar du, kutsu konfederal sakona duena, eta d) euskal sindikalismoa da. Hogeita hamar urte igarota, ELAren jardun sindikalaren oinarriok oraindik ere badiraute. Baina berriz irakurri dira.

Oso laster, Euskal Herriaren berezitasun ekonomiko eta geografikoak aintzat hartuta, ELAk bere lurraldegi-turen egitekoa lehenetsi zuen, hots, eskualdeak, sarri enplegu-eremuekin bat datozenak. Honi esker konfederazioak garatu eta ezarpen sendo bat lortu ahal izan zuen, eta horrek hauteskundeetan ondorio erabakigarriak izan zituen euskal eskualdeetan egindako negoziatioetan. 1978an egindako aukera politiko arriskutsuak eta antolakuntzari buruzko erabakiek fruitua eman zuten. 1982tik aurrera ELAk hauteskunde sindikaletan botoen %30,24 lortu zuen; UGTk, berriz, %21,53; CCOOek, %17,12 eta LABek, %5,87; gainerako botoak sindikaturik gabekoentzat izan ziren. Ordutik aurrera sindikatu "espainolistek" ezin zuten gehiengoaren babesa zuen akordiorik sinatu ELA aintzat hartu gabe.

80etako hamarkadan ELAren ezarpena hedatu egin zen. Hau hautestontzietan igarri zen. 1990an ELAk botoen %37,84 lortu zuen (UGTk %19,54; CCOOek %17,82, eta LABek %13,15). Bi sindikatu abertzaleak estatu-sindikatuari gailendu zitzaizkien. Ezarpenak ere afiliatu kopurua gehitu zuen; hamabost urtean ia %70 hazi zen, Euskal Herriak eta bere industria handiek krisi ekonomiko oso larria jasan zuten urteetan (siderurgia, ontziolak). 1977ko 44.000 afiliatuetatik 52.000ra igaro zen 1988an, eta 74.000ra 1991an.

Baina ELAren baitan etorkizun sindikalaz gogoeta egi-ten hasi ziren, garai frankistatik zetozen belaunaldiak buruzagitza uzten zihoazen heinean. 1990ko kon-

gresuak baieztapen oso autokritikoa egin zuen: “ELA bere baitan itxita dago, gizartetik aldentuta, ekimenik eta erantzuteko gaitasunik gabe” (Letamendia, 2004:115), militatzeko ia-ia etsipenean erorita.

Hau harrigarria izan daiteke, egoera “objektiboa” ikusirik: hauteskundeen emaitzak, afiliazio kopurua eta kokapen instituzionala. UGTk eta CCOOek 1987an alde biko negoziazio zentralizatua baztertu eta sektoreko negoziazioa lehenetsi zuten. Euskal Herrian hiru sindikatuen arteko ekintza bateratuak ongi funtzio-natzen zuen une hartan. ELAk ardura handiagoak har zitzakeen, indar eta itzal handiagoa zuenez. Baina sindikatua ez zegoen lasai, langile-klasea eraldatzen ari zelako eta bere afiliatuen konposizioa egonkorra ez zelako. Beste euskal sindikatuen moduan, ELAren oinarria lantegi tradizionalak ziren (ontziolak, era askotako industria), eta guztiak ere krisi gorrian zeuden. Hala ere, krisian agertu zuen borroka egiteko jarrerari esker mantendu zen, baita afiliazioan hazi ere. Baina afiliazio honen osaketak arazoak zekartzen. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) gazteen %50 eta Nafa-rraoko %23 aldi baterako langileak ziren. Prekarieta-tean zegoen 25 urte arteko %73a eta 30 urte arteko %46a.

1990ko kongresuak ELAren egitura eraldatzea erabaki zuen, langile-klasean gertatzen ari ziren aldaketei erantzuteko gaitasuna izate aldera. Eraldatze horren ardatza bereizketa bat egitea zen, alde batetik negoziazioko oinarri instituzionalak (sektoreak) kokatzea, eta bestetik sindikatuaren antolakuntza oinarriak. Lanbidearte-ko edo lurralde egitura izango da ekintza eta dinamika sindikalaren motorra –eskualde integrala–, oraindik ere sektoreak gune instituzional nagusi izanagatik. Areago, ELAk zalantzan jarri zuen negoziazio kolektiboaren funtzioa aberastasuna birbanatzeko tresna nagusi den

aldetik (baina ez zuen erantzunik ema-ten). Une horretan gauza bat ikusi zen: sektoreko negoziazioaren zutabe instituzionala ez zen gauza izan lanetik kapitalera gertatzen ari den errenten transfe-rentzia geldiarazteko.

Antolakuntzari buruzko hausnarketa honen atzean beste zerbait dago, hots, sindikalismoak gizartean izan behar duen lekuaren bilaketa, edota sindikatuarentzat partaidetza politiko berri baten helburua, alderdiengandik urruntzeko urratsa dagoeneko gauzatu denean. Lanbidearteko eta sektoreko adarren arteko koordinazioa, non lehena gailentzen den, 'proiektu konfederal integral' gisa ikusten da. Bere helburua, ELAren sindikalismoa langileen bizitzako arlo guztietara hedatzea: enplegua, lanbide-heziketa, osasungintza, irakaskuntza, zerbitzu kolektiboak, etab. Bilaketa horretan afirmazio abertzalea lagungarri da, ELA behartu egiten baitu gizartearen aurrean eta sindikatuen artean bere originaltasuna nabarmentzera. Azkenean ELAk bere burua kontrabotere-sindikalismo legez definitu zuen. Honek erakundearen izaera sindikala errespetatzeko aukera ematen du, baita gizartearen baitan dituen asmo eta joera politikoa ere.

1993ko berreratze kongresua

Bi kongresuren artean, 1990 eta 1993 bitartean, ELAren afiliatu kopurua heren bat baino gehiago hazi zen, 67.400tik 88.000raino. "Orduan bazirudien dena ondo zihoala ELArentzat", dio Jose Elorrietak, 1988 eta 2009 bitartean idazkari nagusi izan denak. "Hitzarmen kolektiboen estaldura zuten langileak %90etik gora ziren; afiliazioa gora zihoan; hauteskundeak irabazi egiten gertatu; agintari politikoek errespetatu egin behar gintuz-

ten, etab. Geure artean, berriz, genioen gauzak horrela jarraitzekotan hiltzear geundela”.

1990an hasitako hausnarketak jarraipena zuen. Langile-klasearen konposizioa ELAren hausnarketa estrategikoaren erdigunean kokatu zen. Beharrezkoa zen sindikatuan egoerarik seguruenean zeuden langile-taldeei leku erabakigarria ematen zien logikatik urruntzea, izan ere, hauek ez baitzuten etorkizuna ziurtatuko.

ELA berritu beharrean zegoen 1976ko bere kongresuan definitu zituen antolakuntza printzipioak: afiliatuen sindikalismoa birreratzea; autonomia finantzarioa izatea; antolakuntza-egitura tresna erabilgarria bihurtzea.

Afiliazioa, bizi sindikalaren oinarri

ELAk ez du parte hartzen Espainiako lan-harremenen sistemaren oinarrian dagoen adostasunezko elkarrikeria sozialean; horrexegatik, sindikatuak berebiziko arreta ematen dio bere afiliazio-oinarriari. Behin eta berriz, bereziki ondare sindikala itzuli zenean (1982), lanbide-heziketa eratu zenean (1992), baina baita lan-legeriaren erreforma egin izan den aldioro ere (Unanue Letamendi, 2002), sindikatu espainolek ELAri esaten diote indar-erlazioa ez dagoela bere alde. Eredu honi loturiko konpromisoetatik aldendu ahal izatearren, ELAk afiliazio-sindikalismo izaera berresten du. Belgikako CSCren ereduari jarraiki –aspaldidanik dago ELA harekin harremanetan–, euskal sindikatuak afiliatuei kuota handiak eskatzea erabaki zuen. Kuota horiek trukean piskanaka guztiz indartsua bilakatu den greba-kutxa bat eskaintzen dute, eta afiliatuentzako zerbitzuak (aholkularitza juridikoa, bereziki).

1993ko kongresuak afiliazio-sindikalismoarako joera hori berretsi eta areagotu egiten du. Baina sindikatuak berez joaten ez diren tokietan bilatu behar dira afiliatuak: baldintzarik kaskarrenetan dauden langileen artean eta sektorerik ahulenetan. Garai honetako joerek argi islatzen zuten sindikatuak egin behar zuen hautua: legeak eskaintzen dituen egitura instituzionaletan murgilduta erakunde den aldetik, iraun zezakeen. Baina horrela ezin izango zuen iraupen politikoa bermatu, hots, bere buruaren jabe den mugimendu autonomo gisa jarraitu. "Orduan hutsera jauzi egin genuen -dio Elorrietak-, erabaki genuen sindikatua guztiz eraldatu beharra zegoela".

Erakunde integralaren arrazionalizazioa

Negoiazio kolektiboa da ELAren ekintza sindikalaren oinarria. Baina honek ez du esan nahi hori denik sindikatuaren antolakuntza oinarriaren eredu. Negoiazioa ekintza sindikalaren alderdi bat da, eta ez autonomia gainera. Sindikatua bere gune historikoetatik haratago garatzeko, ezinbesteko exigentzia zena, ekintza sindikala sindikatuak berak erabakitako printzipioen arabera antolatu eta koordinatu behar da, eta ez sindikatuak jardungo duen instituzioek ezarritakoen arabera.

Sindikatuak eskatzen duen autonomia medio, berak erabakitzen du bere egitekoak zein diren eta ez du amestituko egiteko horiek adostasunezko eredu sozial batek ezarriak diren mugatzea. Honek esan nahi du ezinbestekoa dela estrategikotzat hartzen diren esparru antzetzan egotea. Lanbidearteko egiturak koordinazio hau bermatuko du, ELAren baitan aurrez egindako antolakuntza hautuak indartuz. 1993tik aurrera federazioak bategiteko prozesu bati ekiten zaio. Lehenik 12 zirenak 9 bihurtzen dira, gero 6, eta azkenean 4, 2003tik aitzina.

Hamabi eskualderekin jarraitzen da, hauek bermatzen baitute lantalde sindikalen eta afiliatuentzako zerbitzuen arteko tokian tokiko koordinazioa. Eskualdeko arduradunen artean sektore bakoitzerako liberatuak daude. Baina espezializazio hau funtzionala da (oinarriko lantaldeekiko harremana, aldian aldiko negoziazioak), eta ez eksklusiboa. Lanbidearteko eta sektoreko adarrak bitarteko bat dira, egiteko sindikalei lotuak, eta ez funtsezkoak, sindikatu baitako harremanak egituratzerakoan. Identitatea orokorra da, ELAren; ez da sektore edo eskualde geografiko bati lotua. 2000 urteen hasieratik dauden lau federazioetako bakoitzak (metalgintza; zerbitzu publikoak eta irakaskuntza; zerbitzu pribatuak; kimika, papergintza, arte grafikoak, erakuntza) gutxi gora behera afiliatuen laurdena biltzen du; hamabi eskualdeek, aldiz, afiliatuen %13,5 (Bilbo) eta 3,5% (Urola-Kosta) bitartean.

Antolakuntza eredu hau ziurtatzeko, sindikatuaren baitan arduradunentzako mugikortasun printzipioak ezarri ziren: konfederazioak ELAko pertsonal guztia eta finantzak kudeatzen ditu. Federazio eta eskualdeetako liberatuak sarri aldatzen dira ardura batetik bestera. “Beren egitekoa ELAren sindikalismoaren ordezkari izatea da, ez metalgintzarena edo sektore publikoarena”, nabarmentzen du Amaia Muñoa idazkari nagusiaren alboko eta diruzainak. Adibidez, metalgintzako federazioeko idazkaria gero zerbitzu pribatuetako edo publikoetako ardura batera pasa daiteke, edo baita eskualde bateko buru izatera ere.

Antolakuntzaren arrazionalizazio hau 90etako hamarkada erditik aurrera belaunaldiak berritzeko ikuspuntu batetik gauzatzen da. Laster antzematen baita arrisku bat, liberatuek sindikalismoaren iraganeko egoera islatzea. “Garai batean, ia ezinbestekoa zen metal-

gintzatic etortzea liberatu izateko". Horregatik erabaki zen zuzendaritzako kideek postua 58 urterekin utzi behar zutela. Liberatu gazteak hartu ziren, batik bat sindikatuak ordezkaritza txikia zuen sektoreetako garapena bermatzearen.

2008ko kongresua: hautu zailen saria

2008ko kongresuan ELAk bere hautuen emaitza neurtu ahal izan du. Afiliazioa hazi egin da, 2008ko abuztuan 109.000 izateraino, hots, 2004ko kongresuan baino %4,42 gehiago. ELAk aldizka kazetariak biltzen ditu kopuru hauek egiazta ditzaten, barne-datuak ikuskatzeko aukera emanez. "Autonomia finantzarioaren tasa" –sindikatu instituzionalizatuen aurrean modu erasokorrean erabiltzen den kontzeptua– ia %86ra iritsi zen 2004-2007 epealdian, 2000-2003koan %82tik behera zegoelarik (ELA, 2008:23). Tasa honek islatzen du afiliatuen kuotek diru-sarreretan zenbateko portzentajea duten. ELAk kontzertazioko zenbait erakundetatik alde egin du, sindikatuarentzako diru-iturriak zirenak, baina bere kontrabotere estrategiarekin bat ez zetozenak. Langile aktiboen kuoten %20 eta 25 bitartean greba-kutxara bideratzen da, ELAren garapenerako tresna estrategikoa.

EAEn ELAk hauteskunde sindikaletan botoen %40tik gora lortzen du, eta Nafarroan –puntu ahula– hazten ari da, %21,5era iritsi delarik. ELAk ia 10.000 ordezkari dituela dio, enpresa eta zerbitzu publikoetan. Kongresuak konfederazioko zuzendaritza-egiturak berritu ditu, eta idazkari nagusi berri bat hautatu du, Adolfo Muñoz, *Txiki*.

Kongresuak ontzat eman ditu datozen urteetarako ardatz estrategikoak, aurrez eztabaida ugaritan jorratu direnak.

Antolakuntza: Erakunde integrala eta demokrazia sindikala

ELAk eutsi egiten dio bere aukerari: erakunde konfederatua, oso integratua eta ekintza sindikalean oinarriturik eskualdea ardatz moduan daukana. Aukera estrategiko honi eustearen helburua erakundearen maila desberdinen arteko loturak estutzea da. ELAren aburuz sindikalismo instituzionalizatuak badu, besteak beste, puntu ahul bat: enpresetan present egoteaz ahaztu egiten da, erabat edo ia, hauteskunde garaitan izan ezik. Negoziazio maila desberdinak –enpresak, sektoreak, konfederazioa– nolabait bakanduta daude, edo gehienera jota arau oso lausoen bidez lotuta, adibidez, era zentralizatuan negoziatutako soldata igoerak. ELArentzat egoera honek bi ondorio ditu. Batetik, negoziazio kolektiboaren eragina langileengan oso txikia dela, eta hauek ez dutela apenas somatzen tokian-tokian. Bestetik, sindikatuari bere trinkotasuna sendotzeko aukera kentzen diola.

2008ko kongresuak nabarmendu egiten du ELAren estrategian negoziazio kolektiboak duen lehentasuna, eta horregatik esanahi zabala ematen dio: Negoziazio kolektiboa ez da soilik sindikalisten eta enpresaburuen arteko hartueman; aitzitik, eta areago, langileen iritzia ere jaso behar da, sindikatuaren bultzadaz. ELAk honek la gainditu nahi du enpresen baitan hautatutako delegatuen eta sindikatuen artean negoziazio kolektiboan izan beharreko harremanaren auzia, hiru alderdi dituen harremana sustatuz langileen, enpresetako delegatuen eta sindikatuaren artean. Erreferentziazko hiru maila hauen arteko adostasuna iristea ELArentzat sindikatua, eta bere barne-demokrazia, indartzeko baldintza bat da. Akordio bat ez da inoiz tokikoa bakarrik, beste langile batzuren eragina izan baitezake; baina hitzarmena ezin da oinarriaren babesik gabe egin. Eskualdeen egi-

tekoa erabakigarria da negoziazio kolektiboaren barne-demokratizazio prozesuak gauzaterakoan, herrietan eta sektoreetan present daudelako eta konfederazioarekin duten harremana medio. Demokratizazio prozesu honek langileen batzarrak eskatzen ditu, eta afiliazioaren hazkundera ekarri behar du. Euskal Herrian ELAk langileen %10 inguru biltzen du.

***Ezarpena: eginkizun soziala eta lehentasuna
prekarioei***

ELAk bere burua langile-klasearen bizimodua osorik aintzat hartzen duen sindikatu gisa ikusten du. Sindikatua ez da lan esparrura mugatzen, eta ez da identifikatzen lan-harremanak antolatzeko erakunde ofizialekin. Berak definitzen du bere egitekoak zeintzu diren, beste-ek onartu ala ez.

Ikuspuntu estrategiko hortatik ulertzen da kolokako egoeran dauden langileekiko egiten duen ekintza sindikala. 90etako hamarkadan enpleguaren prekarietate maila handiak (ia %30) bultzatzen egin zuen euskal konfederazioa bere antzinetako guneetatik irtetera; jada mehatxatuak zeuden antzinako guneak. Sindikalizazioa zerbitzu pribatu eta privatizatuetan garatzea lehentasuna bihurtzen da, ez bakarrik afiliazioa gehitzeko bide moduan, baita gizarte-ereduari dagokionez erronka delako ere. Langileen egoera desberdinak (egonkorrak eta prekarioak) sindikalismoaren eginkizuna bera zalantzan jartzen du, langile egonkorrekin identifikatzen den heinean. Baina langile prekarioek sindikatuan antolatzeko duten beharrak erakunde bere egiturez beste era batera arazoitzera eramaten dute.

Federazioen bat egitearen eta eskualdeetara hedatzearen helburua, gainera, antolakuntzan langile prekarioak bakartuta ez garatzea da. Eskualdeek dute ardura

hori, eta sektoreen ekintza tokian-tokian koordinatzen dute. Ekintzaren lehentasunak ez ditu sektore bakoitzeko ordezkari- eta negoziazio-egiturak erabakitzen, sindikalismoaren giltzarri diren erakundeok ezartzen dituzten garapenerako ildo estrategikoek baizik. Horrela, azken bi kongresuen artean ELA propio zuzendu zaie pribatizatu diren zerbitzu publikoetako langileei: garbikuntza, adinekoen arreta, hainbat gizarte-zerbitzu, etab. Bere liberatuak enpresa hauetara hurbildu eta antolatze-lanean jarri ditu, mobilizatzeko asmoarekin. Hainbat gatazka egin dira, era estrategikoan hautatuta, prekari-zazioaren gaian eredu izan zitezten. Pribatizazioa agindu duten botere publikoei –udalak, Jaurlearitza...– kargu hartzean, ekintza sindikala politizatu egiten da, hots, lan-estatus desberdinetan islatzen den gizarte-ereduari buruzko jarrera kaleratzen du.

Eskualdeek afiliatuentzako babes juridikorako bitartekoak eskaintzen dituzte. Konfederazioak abokatu talde handi bat dauka plantillan, eta afiliatuen beharrianak aintzat hartzen dituzte herrietan. ELArentzat hau erantzun partzial bat da enpresa oso txikietan barreiatuta dagoen langile-klasearentzat.

Ekintza: aukera estrategikoak eta gatazka hautatuak

Kongresuak ere berretsi egin zuen konfederazioak negoziazio kolektiboko esparruen aukerari ematen dion erantzun pragmatiko eta printzipiozkoari. Erantzuna sindikatuak duen erronka estrategikoaren arabera da, ez negoziazioko lege-esparruaren baitakoa. Zein da, ordea, negoziazio kolektiboko esparru egokia? Langileen parte hartzea barne-dinamikan areagotuz sindikatuari indartzeko modua eskaintzen diona. Euskal Herriko sektore-negoziazioan parte hartzea eta, batzutan, hitzarmenak sinatzea, irizpide horretatik dator; helburua ez

da elkarrizketa sozial sistema batek irautea, honi murriztegia irizten baitiote sindikatuaren helburuetarako.

Hurrengo epealdian ELAk lantoki mailako ekintza eta negoziazioa lehenetsiko ditu, hortik espero baitu beste esparru guztietako negoziatzeko ahalmena hobetzea. Hau egiteko, praktika berriak saiatzen dira. Adibidez, zerbitzu pribatuen federazioak enpresa-batzordeetako delegatuen orduak partekatzeko eredu bat garatu du. Delegatu hauek sindikatuarekin akordio bat sinatzen dute, zeinaren arabera ordu sindikalen zati bat beren enpresatik kanpora erabiliko duten, antolatu gabeko langileekin. "Izan ere, bitarteko hauek ezarpen sindikalaren fruitu dira, ez enpresa bateko langileek emandakoak", dio federazio honetako antolakuntza arduradunak. Ekimen honen arrazoiei buruzko eztabaidak helburu eta bitarteko sindikalen inguruan jarduteko aukera ematen du. Hau ere "antolakuntza integralaren" atal bat da.

Gatazka konfederazioak zorrotz kontrolatzen duen bitarteko bat da, batik bat greba-kutxaren bidez. Berau sindikatuarentzat lupa estrategikoaren moduko zerbait da. Erabili beharreko bitartekoak –indartsuak, bestalde– sindikatuan erabakitako helburu estrategikoen arabera zehazten dira, eta gatazka kontuan ez dute ustekaberrako tarterik uzten. "Garai batean metalgintza zen greba egin zezakeen sektore bakarra; hori ez zen indar sindikalaren adierazgarri, kontrakoa baizik", dio idazkari nagusi berriak. Gaur greba-kutxaren erabilpenak adierazten du mugimendu guztia dagoela ekiten diren gatazken atzean. Enpresaburuek ikasi egin dute ahalegin finantzario honen azpian dagoen erabaki kolektiboa neurtzen. ELAren estrategian hasitako gatazka bat hainbat aste edo hilabete luza daiteke, batik bat ekintza sindikalarentzako zaila den sektore batean gertatzen bada. Gatazka hauetan espero izaten da afiliatu berriak eraka-

rri eta sindikatua enpresetan ezartzea, betiere iritzi publikoarekin lan egiteko aukera ematen dutelarik. Hortaz, greba-kutxa batez ere zerbitzu publiko pribatizatuetan erabili izan da; ondorioa, sindikalizazioaren garapen handia eta langileentzako hitzarmen onak.

Auzi nazionala eta sindikatua gizarte-mugimendua gisa

Sindikalista eta euskal herritarrak: auzi nazionala ELAren nortasunaren eta ekintzaren muinean dago. Ekintza bortitzak erabat arbuiatzen dituzte, eta hau bat dator ekintza sindikalean praktika demokratikoak hautatu izanarekin. Baina euskal nortasun erreferentzia hori arduradunek kontuz erabiltzen dute, bai baitakite garrantzitsuagoa dela sindikatuaren koadroentzat afiliatuentzat baino. Langile immigranteak –Espainiatik edo beste nonbaitetik etorriak– ugariak dira, eta eurak daude Euskal Herrian prekaritatea gehien jasaten duten jendearen artean. Nortasun nazionalak, halere, eginkizun egituratzaile bat dauka bere lan-indarraren ezaugarri hutsetan geratzen ez den langile-klase batean. Langile-nortasuna zabalagoa da, eta hau frogatzen du auzi nazionalak. ELAk bere lehentasunen artean kokatu du LABengana hurbiltzea. Badirudi euskal kideen artean oztopo asko dagoela horretarako, eta noski, indar antiabertzaleak –“espainolistak”– ahalegin honen aurka daude erabat. ELAko buruzagiek gogoratzen dute Europako Sindikatuen Konfederazioko lehendakariak 1995ean Felipe Gonzalezi egin zion bisita bat zela-eta UGT eta CCOOek ELA salatzekeo gutun bat idatzi zutela, konfederazio hartako kide izanik. ELAk, bestalde, kokapen berezia du Europako konfederazioan Itun Konstituzionalaren aurkako jarrera medio.

Bere ibilbidea bera ikusirik, ELA salbuespen bat da nolabait Europako komunitate sindikalean. Berezitasun honekiko ezikusiarena egin daiteke. Eredu bezala proposatzea uko egin diezaiokegu, oso esparru geografiko eta sozial txikian garatu delako edota ezaugarri historikoak bereziak izan dituelako.

Baina aurkako ikuspuntua ere aukera daiteke: Euskal Herriak bere betiko ekonomiaren egundoko krisia jasan zuen, eta jarduera berrietarako plataforma bilakatu da. ELAren sindikalismoa indarberritu egin da egiturazko eraldatze batekin; hain zuzen, beste tokietan gainbehera sindikala azaltzeko baliatzen den eraldatze bera. Europako erakunde sindikal handientzat zailtasun handiak ekarri dituen garai honetan ELAk egin duen ibilbide arrakastatsuak behartu egiten gaitu hori baldintzatan gertatu den aztertzerara. Gutxienez bat nabarmentzen du ELAk bere aurkarien aurrean, elkarrizketa sozialaren arauak errazegi baztertzan dituela aurpegiratzan diotenen aurrean. Kongresu hasieran ordezkari atzerritar batek bere kideen aurrean ELAko estrategiari buruzko galdera egiten du: "Baina, zer geratzen da sindikalismotik elkarrizketa sozialik gabe?". "Sindikalismoa", erantzun zion kargua uzteko zegoen idazkari nagusiak.

ELA Hego Euskal Herrian hedatuta dago, EAE eta Nafarroako erkidegoetan. Iparraldean ELAren presentzia kulturala batik bat sinbolikoa da, fundazio baten bitartez. Hegoaldeko biztanleria 2,75 milioi pertsona ziren 2008an, horietatik 1,1etik gora Bizkaian. Milioi bat soldatapeko langile daude, %24 industrian, %64 zerbitzuetan, %10 eraikuntzan.

Langabezia tasa %5,6 zen 2008ko krisiaren aurretik, eta langileen %27,4 aldi baterako kontratuz ari zen.

Iturriak:

Bunel J. (1999), "Syndicalisme et nationalisme au Pays Basque espagnol" Chronique internationale de l'IRE, 56. zenb., urtarrila.

ELA (2008), Presentación de ELA y su XII Congreso, ELA Euskal Sindikatua, Bilbo.

Frotiée B. (2005), "Politique d'égalité des chances en Espagne, une intégration dans le processus de transition démocratique", VIII Congrès de l'Association française de science politique, Lyon, irailak 14-16.

J.M. Unanue Letamendi (2002), Las relaciones laborales en Euskal Herria. Apuntes históricos y análisis de su evolución desde la transición política, Manu Robles-Arangiz Institutua.

F. Letamendia Belzunce (2004), ELA 1976-2003 Sindicalismo de contrapoder, Manu Robles-Arangiz Institutua.

2007ko ekainean eta 2008ko azaroan egindako elkarrizketak, egileen parte hartzea kongresuan.

OHARRAK:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....